



#We are orona

Orona 

2023

Memoria

-EUS-

01 Lehendakariaren
mezua

02 Zuzendaritza Nagusiaren
mezua

03 Orona
gara

04 2023ko
zifrak

05 Pertsonetikiko eta gizartearekiko
konpromisoa

06 Ingurumenarekiko
konpromisoa



Lehendakariaren mezua

Pertsonetan oinarritutako kooperazio proiektu bat

IKER ARGOTE

Lehendakaria

Oronaren izatearen arrazoari jarraituz eta kooperatiba sendo bat eraikitzeke eman ditugun pausoei esker, enplegua sortzen jarraitu dugu, 6.111 pertsonatara iritsi arte.

Badakigu garrantzitsua dela gizarte- eta enpresa-proiektu sendo eta lehiakorra indartzen jarraitzea, etorkizuneko erronkei irmotasunez aurre egiteko. Pertsonen konpromisoari eta parte-hartzeari esker, 2024an lanean jarraituko dugu enpresa eta alor instituzionaleko proiektu estrategikoetan, urrats sendoekin European dugun kooperatiba-esperientzia garatzen jarraitzeko.



Nazio Batuen Mundu Itunaren sareko kide garen aldetik, beste behin ere, berretsiz egiten ditugu Itunarekiko atxikimendua eta defendatzen dituen printzipioekiko konpromiso sendoa, uste baitugu funtsezko gida dela estu lotuta sentitzen ditugun jasangarritasun-konpromisoetan aurrera egiteko.

Oronaren historian parte hartu duten guztien ahaleginari eta dedikazioari esker, 2024an gure kooperatiba sortu zenetik 60 urte beteko ditugu. Aukera hau aprobetxatu nahi dut gure izate eta egitearen balioa azpimarratzeko, 60 urte ondoren honaino ekarri gaitu eta. Gure proiektuan ekarpenak egiten jarraitzera animatzen zaituztet, ziur baikaude gakoa beti pertsonetan egon dela eta egongo dela. Zuen konpromisoa izango da gure etorkizuna eraikitzen jarraitzeko gakoa.

Besarkada handi bat.

Zuzendaritza Nagusiaren mezua

Urrats sendoekin Orona UE 2030erantz

AITOR AZKARATE

Zuzendari Nagusia

Amaiera ematen diogu ezegonkortasun globalak nabarmen markatu duen ekitaldi honi. Hainbat gatazkaz eta ziurgabetasun sozioekonomikoz betetako mundu baten lekuko izan gara.

Testuingurua konplexua izan arren, gure taldearen konpromisoari eta gure proiektuaren sendotasunari esker, zailtasunak gainditzeko gai izan gara. 1.009 milioi euroko salmentak izan ditugu, 6.111 pertsona eta 143 milioi euroko EBITDA. Horrek hazkunde orokorra eta Oronaren ustiapen-emaizen etengabeko hobetzekuntza ekarri du.

Esperientzia kooperatiboan oinarritutako gizarte- eta enpresa-proiektuak aurten ere indartzen jarraitzen du European, Orona UE 2030rako norabidean sendotasunez pausoak emanez.



2023an proiektu estrategiko garrantzitsuak garatzen jarraitu dugu, gure lehiakortasuna etengabe hobetzen eta lortutako lidergo-posizioak finkatzen lagunduko dutenak.

Orona Ideo irekiera- eta jasangarritasun-eredu gisa eta inguruneari egiten dion ekarpen gisa nabarmentze da. Orona Fundazioaren bidez, komunitatearekiko gardentasuna eta konpromisoa erakusten ditugu.

Gure erakundearen funtsa gizarte- eta enpresa-proiektu honetan parte hartzen dugunon ahaleginean, parte-hartzean eta inplikazioan oinarritzen da. Beraz, aukera honetaz baliatuz, gure proiektua garatzen laguntzera eta gure etorkizuna eraikitzen urrats sendoz aurrera egitera gonbidatzen zaituztet.

Elkarrekin, nahi ditugun erronkak gaindituko ditugu.

Besarkada handi bat.

Orona gara

Pertsonak gerturatzen ditugu, distantziak laburtuz

Gizarte- eta enpresa-proiektu europarra gara, 6.000 pertsona baino gehiagok osatutakoa. Igogailuen, eskailera mekanikoen, arrapalen eta korridoreen diseinuaren, fabrikazioaren, instalazioaren, mantentze-lanen, modernizazioaren, zaharberitzearen eta ordezkapenaren balio-kate osoa hartzen duten 360°-ko soluzioak eskaintzen ditugu.

Garraio bertikaleko Europako bosgarren operadorea eta igogailuen arloko munduko 10 fabrikatzaile nagusietako bat izanik, merkatuko segmentu guztiei era guztietako igogailu jasangarriak eskaintzeko gai gara.

Europan bi ekoizpen-instalazio ditugu, eta, horiei esker, liderrak gara Europako esparruan aparatu osoen ekoizpen-ahalmenari dagokionez. Fabrikazio lokal eta zentralizatuagatik bereizten gara, inguruko ekonomiarekin eta tokiko enpleguari eustearekin dugun konpromisoaren isla.



60
urteko
esperientzia

1.
Europan igogailu
osoak ekoizteko
ahalmena duten
enpresen artean

+300.000
igogailuk
daramate
Oronaren
teknologia
munduan

25 M
pertsona iristen
dira beraien
helmugara gure
soluzioei esker

2023ko zifrak

Gure **gizarte-** eta **enpresa-proiektua** indartuz




6.111
Pertsona

(+492 2022arekin alderatuz)

13% emakumeak | 87% gizonak



1.009 M€
Salmenta bateratuak



13
Herrialde
antolaketa propioarekin



143 M€
Emitza bateratuak
(EBITDA)



64,1 M€
Inbertsioak



+100
Herrialde
esportazio-ereduarekin

Pertsonetikiko eta gizartearekiko konpromisoa

Gizarte bidezkoago, integratzaileago eta jasangarriago baten alde egiten dugu



01 IZAERA KOOPERATIBOA ETA BALIOAK

Orona S. Coop. kooperatiba gisa eratzeko, eta gaur egun izaera berarekin jarraitzeko, konpromisoa, parte-hartzea, proaktibitatea eta hurbiltasuna bezalako balioak defendatzeko erabakiari erantzuten dio.

Kooperatiba garen aldetik, gure helburua da gauden tokira oreka soziala eta enplegua ekartzen jarraitzea, gure gizarte- eta enpresa-proiektua sendotzen dugun bitartean.

02 MUNDU ITUNA ETA 2030 AGENDA

2006az geroztik, urtero berresten dugu Mundu Itunarekiko atxikimendua eta defendatzen dituen printzipioekiko konpromiso sendoa.

Harro gaude Mundu Itunaren sarean parte hartzeaz; izan ere, estu lotutasentitzen ditugun jasangarritasun-konpromisoetan aurrera egiteko funtsezko gida da.

Nazio Batuek ezarritako 2030 Agenda betetzeko, 2015etik aurrera Garapen Jasangarriako Helburuen ebaluazioan, jarraipenean eta hobekuntzan aurrera egiten dugu.

03 BERDINTASUNAREKIN KONPROMETITUTA

2014az geroztik, Emakunderen (Emakumearen Euskal Erakundea) emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzara erakundea aitortzen dugu. Horren bidez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen eta sustatzen duten jarduerak egin direla egiaztatzen da.

Berdintasunaren arloan dugun konpromisoa sendotuz, 2023an Orona S. Coop.-en laugarren Berdintasun Plana egin dugu 2023-2026 aldirako.

04 **INGURUNEAREKIKO ERANTZUKIZUN SOZIALA**

Gizartearekin dugun elkartasun-konpromisoari jarraiki, urtero gure irabazien zati bat bideratzen dugu COFIPentzat (Kooperatiba-heziketa eta -sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena), hainbat ekimen bultzatuz.

Gure ingurunean eragin positiboa sustatzen jarraitzeko asmoz, 2023an, gizarte-, kultura- eta kirol-erlako 327 erakunderen proiektuak lagundu ditugu.

05 **ORONA FUNDAZIOA**

Orona Fundazioak bere ingurunea garatu nahi du alderdi sozioekonomikoetan, kulturaletan, hezkuntzan, gizartean eta kirolean, eragile sozialekin lankidetzan proiektuak garatuz.

2023an, Fundazioak gizartearekiko konpromisoa sendotzen jarraitu du, "Gizarterantz" ardatzetik abiatuta, gizarte-kohesioa, kultura- eta ikasketa-garapena, euskararen sustapena eta biodibertsitatearen babesa sustatzen dituzten erakundeekin jarduerak babestuz.

Era berean, irekieraren eta ingurunearekiko lankidetzaren adierazgarri, fundazioak hainbat erakundeekin antolatutako ekitaldiak hartzen jarraitu du Orona Ideo ekosisteman.

06 **ETORKIZUNAREN ALDEKO APUSTUA: ORONA UE 2030**

Orona UE 2030 gure enpresa Europako eremuan sendo finkatzeko proiektua da, eta helburu hauek ditu: 7.000 pertsonako langa gaindituz enplegua sortzen jarraitzea eta 1.200 milioi euroko salmentetara iristea.

2023an, aurrera jarraitu dugu sektorean Europako erreferente izango den Orona eraikitzeko ibilbidean. Erakunde osoaren parte-hartzea eta inplikazioa eta ikuspegi partekatua izatea funtsezkoak izango dira ezarritako helburuak lortzeko.



Ingurumenarekiko konpromisoa

Modu arduratsuan jokutzen dugu, planetan dugun inpaktua txikiagotzeko



01

EKODISEINUA

Ekodiseinu-ziurtagiria (ISO 14006) duen sektoreko lehen enpresa izan ginen, gure produktu eta zerbitzuek bizi-ziklo osoan ingurumenean duten eragina murrizteko asmotan.

2023an igorritako gailuen %95 ekodiseinatu egin da.

02

KARBONO AZTARNA

Oronak Karbono-Aztarnaren (ISO 14064) kalkuluaren egiaztapena du, Berotegi-Efektuko Gasen (BEG) emisio-iturri nagusiak identifikatzeko eta horiek ezabatzeko edo, bestela, murrizteko ekintzak ezartzeko.

2023an, handitu egin dugu karbono-aztarnaren kalkulua, Orona S. Coop.-en egungo irismenean Espainiako gainerako sozietateak barne hartuz.

03

SOLUZIO EFIZIENTEAK

Gure produktuen erabilera-faseko eraginkortasun energetikoa hobetzen jarraitzen dugu, eta, horretarako, honako soluzio hauek eskaintzen ditugu: energia birsortzeko sistemak, kontsumo txikiko gearless eragingailuak, LED argiak eta itzalaldi automatikoak eta igogailuaren stand-by sistemak.

Gaur egun, Essentia eta Smart serieetako soluzioak dira energia-eraginkortasun handiena dutenak, VDI 4707 gidaren eta ISO 25745-2 arauaren arabera.

04 **PRODUKTUAREN INGURUMEN ADIERAZPENA**

Gure soluzioek beren bizi-zikloan eragiten dituzten ingurumen-inpaktuei buruzko informazio kuantitatiboa eskaintzen dugu, Essentia, Smart eta Smart+ serieen Produktuaren Ingurumen Adierazpen ziurtatuen bidez (ISO 14025).

Produktuaren Ingurumen Adierazpen horien emaitzek eraikuntza jasangarriko proiektuak dituzten eraikinetan ingurumen-bereizgarriak lortzen laguntzen dute.

05 **JATORRI BERRIZTAGARRIKO BERMEA DUEN ENERGIA**

Ingurumenean dugun eragina murrizteko eta karbono-aztarna murrizteko, bai gure industria-instalazioetan, bai eta Espainiako sozietate guztietako lantegietan, 2023an kontsumitutako energiak jatorri berriztagarriko bermea izan du.

06 **PRODUKZIO-EROSKETEN INGURUMEN-INPAKTUA**

Gure inguruko aberastasunari lagundu nahi diogu, eta materialak erosteko fasearen ingurumen-inpaktua murriztu, tokiko hornitzaileak kontratatzearen aldeko apustu sendoa eginez.

Hartutako kontratazio-neurri horien ondorioz, 2023ko produkzio-erosketen %88 baino gehiago hornitzaile nazionaleri egin zaizkie.





orona-group.com

